

Bezeroekiko Harremanak

Bezeroekiko harremana gertukoa eta profesionala izango da. Aurrez aurreko harremanak funtsezkoak izango dira, bezeroen beharrak hobeto ulertu eta haien proiektuak pertsonalizatzeko. Horretarako, aholkularitza zerbitzua eskaintzen da, bezero bakoitzaren lorategi-proiektua bere neurrira egokitzeko. Beste alde batetik, online zerbitzuak ere eskainiko dira prozesuak arinagoak izateko. Proiektuak amaitu ondoren, jarraipen zerbitzua eskaintzea ere aurreikusten da, bezeroen satisfakzioa bermatzeko.

